

Sakana erdialdeko azentuaren deskribapena

JOSÉ LUIS ERDOZIA MAULEÓN*

1. SAKANA ERDIALDEKO AZENTUA

A ldez aurretik, garbi utzi nahi nuke ez dela, azentuari eskeintzen zaion lantxo honetan, Sakana erdialdeko hizker(et)ako azentu(ar)en azterketa sakona gauzatuko. Hala ere, ez dut utziko Sakana erdialdeko azentuaren gaia egun ditugun datuen gainean beste hainbat metatu gabe.

Horrela, beraz, eta gai prosodiko honi buruzko zenbait kontzeptu aipatu ondoren, azterketa esparruko azentuaren gainean orain arte esandakoa jasotzeaz gain, beste daturen batzuk gehituko zaizkio, horretarako egokitu dudan galdetegiaren emaitza moduan. Galdetegia¹ Etxarri, Arbizu eta Uhartzen erabili da eta azentuaren kokaguneari eman zaio bertan lehentasuna, emaitzak geroago jasotzen direlarik.

2. AZENTUARI BURUZKO ZENBAIT KONTZEPTU

Azentua zerbait abstraktoa da, silaba bati ematen diogun prominentzia, hots, azentua daraman silaba hitzaren tontorra da hizkuntza gehienetan. J.I. Hualdek (1997, 6) esaten du azentua, eremu edo unitate batean, silaba jakin bati ematen zaion prominentzia edo nagusitasun prosodikoa dela; eta gaineratzen du prominentzia ez dela edozein silabatan kokatzen, eta hizkuntzek arau zehatzak dituztela azentuzko prominentzia ezartzeko.

* Ertainetako irakaslea.

¹ Etxarrin, 70 urteko *Inozentzia Markotegi Razkin* andereak erantzun zituen egokitutako galdera guztiak; Arbizun, 69 urteko *Pakita Balda Mendinueta* andereak; eta Uhartzen, 72 urteko *Nicanor Beltza Ustarrotz* jaunak.

Baina, azentuaren ezarketa-arauak ez dira berdinak hizkuntza guztietan:

– Batzuetan, oso era sinplean gauzatzen da: lehen silaban, salbuespenik gabe, txekera, finera, islandiera, ...; hitz andanaren azken silaban frantsesean; azkenaurrekoan, swahilieran.

– Beste batzuetan, latina kasu, era ez hain sinplean: azkeneko silaba astuna bada, berak darama azentua, eta horrela ez bada, azken hirugarren silaban.

– Eta badira azentuaren ezarketa era zailagoan gauzatzen duten hizkuntzak, gazteleraren kasua esaterako, zeinetan hiru azentu patroï (oxitonia, paroxitonia, proparoxitonia) bereizten baitira, eta horietan ere salbuespenak agertzen direlarik.

Bestalde, eta berriro Hualderi (1989, 53) jarraituz “munduko hizkuntzetan, prosodiaren aldetik, bereizkuntza nagusi eta nahiko garbi bat egin dezakegu bi sistemaren artean: *indarrezko azentua* (*stress-accent, acento de intensidad*) eta *tonua*. Bi prosodi sistema hauen artean bada hirugarren tipo bat, bata eta bestearen karakteristikak dituena. Hirugarren prosodi sistema hau *doinu-azentua* (*pitch-accent, acento musical*) edo azentu tonala deitzen da komunki”.

Lehenaren kasuan (**indarrezko azentua**), hitza da normalean azentu-eremua eta silaba batek izaten du prominentzia edo nagusitasun prosodikoa. Baina, zertan datza hitzunik sentitzen duen nagusitasun prosodiko edo prominentzia hori? Edo beste modu batean esanda, zerk bereizten ditu silaba azentudunak? Silaba azentuduna azentugabeekin konparatzen badugu: hark beste hauek baino *iraupen* handiagoa du, luzeagoa da; indartsuagoa da, hots, *intensitate* gehiago du; eta azkenik, intonazioari erreparatzen badiogu, tontor bat bezala agertzen da silaba azentudunean, hau da, *tonua* altuagoa du (*pitch, ahots-uhinaren oinarrizko maiztasuna*).

Bigarrenarenean (**tonua**), ez dago prominentziarik silaben artean, eta bokale bakoitzak tonu jakin bat dauka, gutxienez bi tonu (*goikoa* eta *behekoa*) bereizten direlarik.

Eta hirugarrenari (**doinu-azentua**) dagokionez, lehen esan dugun moduan, garbi ez tonalak ez azentualak diren hizkuntzak sartuko zaizkigu. Hauetan doinua erabiltzen da hitz osoa karakterizatuz, eta ez silaba bat soilik.

Gure azterketa esparruaren kasuan, galdetegiaren emaitzak erakusten dutenaren arabera, lehen sistema erabiltzen da, hots, indarrezko azentua, I. Gamindek² (F.L.V. 69, 1995, 298) azentu metrikala deitzen duena.

3. EUSKAL AZENTUAZ

Euskal azentuaren gaineko ikerketak Manuel Larramendirekin (1729) hasi baziren ere (modu nahiko sakonean esan nahi da), XX. mendearen azken laurdenean izan dute benetako loraldia, bai sailkapen orokorrak gauzatu nahian, bai era monografikoan egin baitira. Hemen, hauek guztiak aipatu

² (1995, 298): “Azentu metrikalaren ezaugarriak nagusienak unitate azentugarriko silaba bakar bat gailentzea eta azentua, nahiz hitz markatuak dauden, erregela batzuren arabera ezartzea ditugu”.

baino ez dira egingo, eta soilik horietariko azken lan orokorraz (J.I. Hualde, 1997) luzatuko naiz gehiago, azkena izateaz gain, Euskal Herri osoko azentua aztertzen baitu, azentu arau sistemen deskribapena eginez eta horietako mota zabal batzuk bereizten direlarik.

Larramendiz gain, Navarro Tomas (1925) Gipuzkoakoaz eta Larrasquet (1928) Zuberoakoaz arduratu ziren. Urte batzuk geroago Azkuek (1930, 1931) nolabaiteko sailkapena burutu zuen, Lekeitio, Bidasoa eta Zuberoako azentuak bereiziz. Diktadura garaiko lehorteari amaiera emanaz, Mitxelena (1972) izan zen lehen sailkapen orokorra eskeini zuena, lau multzo nagusitan banatuz euskal azentua: Mendebalde-Erdialdekoa, Bidasoakoa, Nafarroa Garaikoa eta Zuberoa-Erronkarikoa. Ondoren Txillardegik (1984) bitan bildu zituen Mitxelenak aurkeztutako lau multzoak, Mendebalde-Erdialdekoari Bidasoakoa eta Zuberoa-Erronkarikoari Nafarroa Garaikoa gehituz. Geroz, eta aipatu azken honen aurretik ere, lan ugari, monografikoak batez ere, eman dira argitara, hala nola, Basterretxea (1974, 1975 Gernika), Laspiur (1979, Eibar), Etxebarria (1991, Zeberio), Jansen (1992, Elorrio), Elordieta (1995, Lekeitio), ... Eta azkenik, ezin aipatu gabe utzi, azken hamar hamabost urte hauetan bereziki nabarmendu diren I. Gaminde eta J.I. Hualderen ikerketak, Euskal Herriko azentuerak aztertu eta motak bereizi dituztelarik.

Gauzak horrela, nik azentuari buruzko Hualderen azken lan orokorra (1997) erabiliko dut erreferentzia moduan, Sakana erdialdeko azentuera deskribatzerakoan. Bertan, Hualdek (1997, 73) diosku euskarak oso azentu sistema desberdinak erabiltzen dituela eskualde batetik bestera, eta batzuetan, elkarren ondoan mintzatzen diren euskal hizkerak oso desberdinak direla azentuaren aldetik. Azentu aniztasun harrigarria du, beraz, euskarak, eta oparotasun hori dela-ta, gertatzen diren azentu aldaera guztiak kontuan hartzea ezinezkoa da bere ustez. Hala ere, euskal azentu sistema nagusien ezau-garririk interesgarrienak ematen ditu, lau multzo edo kapituluetan aurkezten dituelarik:

– [-2] azentua edo paroxitonoa, hots, azkenurreko silaban ezartzen da azentua. Zuberera, Erronkaria eta ekialdeko beste hizkera askotan (Zaraitzu, Esteribar, Baztan, Ultzama, Lapurdi eta Nafarroa Beherea) agertzen da, nahiz eta berezitasunak ugari izan. Azentuera hauxe arau nagusizat dute Antzuola eta Bergarako hizkerak, baina Hualdek [+3] araukoekin batera aztertzen ditu, hurbiltasun geografikoa dela medio.

– [+2] azentua, hau da, azentua normalean bigarren silaban doa. Euskal Herriko erdialdeko eremu zabalean (Oñati, Beasain eta Bidasoan) ematen da, berezitasunak ere badirelarik. Eta arau hau jarraitzen ez dutela onartu arren, multzo honetan aipatzen ditu Nafarroako mendebaldeko zenbait hizkeraren (Sakana, Imotz, Basaburua) azentuerak.

– [+3] azentua, hots, azentua hirugarren silaban doa. Urolaldeko (Azkoitia, Azpeitia, Urrestilla, Errezil) hizkerak du arau nagusizat azentuera mota hau. Zeberio eta Arratiakoa ere multzo honetan aipatzen ditu, baina formula bakar batekin deskribatzeko zailagoa dela gaineratuz.

–Doinu-azentu sistemak. Bizkaiko iparraldekoak (Gernika, Getxo, Lekeitio, Ondarroa, Markina, ...) dira.

4. SAKANA ERDIALDEKO AZENTUAZ IDATZI DENA

Ez da asko idatzi Sakana erdialdeko azentuari buruz, ez eta prosodiari buruzko azterketak ugaritu diren azken honetan, eta zerbait gehiago egin bada ere aldameneko Burundakoaz, bertako azentuaren kontua ez dela erreza esaten digu Izagirrek (1967, 46). Nik ere Sakana erdialdekoaz gauza bera pentsatzen dut, eta horrexegatik, lehenik, beste ikertzaile batzuek esan dutena jasoko dut, ondoren nire grabaketen emaitzekin alderatzeko, baina argi utziz, edonola ere, Etxarri, Arbizu eta Uharteko hiru informatzaileen emaitzak baino ez direla. Bestalde, belarriak aditzera ematen didana jasoko dut, eta oraingoan ere, aztertzaile honen belarriaren emaitza baino ez dela azpimarratu nahi nuke. Azterketa sakonagoa beharko litzateke Arakil, Sakana erdialdea eta Burundako azentuaren gainean, baina hori beste ikertzaileen baten kontua izan beharko da.

4.1. Bitoriano Huizi (1899)

B. Huizi etxarriarrak (1899), euskararen ortografiaz ari zaigularik, azentuari buruzko aipamen bitxia egiten du:

“Por lo que respecta a la Ortografía euskara, los nombres simples no necesitan de acento; los compuestos, en singular se acentuarán en la última sílaba, y en plural, en la penúltima. Sirvan de ejemplo:

indar – indarrá – indárrak
 eder – ederrá – edérrak
 galant – galantá – galántak
 á los que les doy valor de compuestos”. (1899, 74)

4.2. Euskal Dialektologiaren Hastapenak (1987)

Euskal Dialektologiaren Hastapenak lanean Ipar Nafarrera Garaia (Arbitutik ekialderako Sakanako herriak sartzen dituzte hemen) aztertzerakoan, azentuaren atalean ondorengo aipamena egiten da: “*Araitz eta Arakil, itxura denez, Mendebaldeko euskalkiekin doaz: (+2); eta hitz markatuak (+1).*” (1987, 175).

4.3. Iñaki Gaminde (1995)

I. Gamindek *Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa* (F.L.V. 69, 1995) artikuluan gipuzkeraz azentuaren araberako hiru³ talde egin daitezkeela esaten du: tonala, metrikala eta fixoa. Eta bigarren multzoa beste bi azpimultzotan banaturik aurkezten du: [Æ 2 eta 1^{..}], eta hauetariko lehena, era berean, beste bi azpitaldetan banaturik, *-atzeragarria* eta *+atzeragarria*. Eta aztertutako herrien artean, Etxarri eta Burundako Urdiain, bigarren taldeko [Æ 2 *-atzeragarria* azpimultzoan egokitzen ditu; eta Lizarragakoa, berriz, azken taldeko adibide bakartzat du. Azentu metrikala⁴, beraz, Etxarrikoa, eta

³ Gaminde (1995, 298): *Gipuzkeraz hiru azentu molde nagusi egiten dira; Mutrikun azentu tonala dugu iparraldeko bizkaieraz legez, Ergoienako Lizarraga herrian azentu fixoa dugu eta gainerako herri guztietan azentu metrikala.*

⁴ Aurrerago definitu badugu ere, horrela azaltzen du Gamindek (1995, 298): *Azentu metrikalaren ezaugarriak nagusienak unitate azentugarriko silaba bakar bat gailentzea, eta azentua, nahiz hitz mar-*

fixoa Lizarragakoa. Eta emaitza akustikoak, hots, azterketa egin ahal izateko herri bakoitzean jasotako hitz guztien neurketak, ematen ditu eranskin gisa, ondorengoak direlarik Etxarri eta Lizarragarako:

ETXARRI

Silaba bikoak

(ó-o)

aza	127	120	gajtje	147	128
astwe	120	116	laune	118	111
planta	117	112	bjuda	124	119
eltzje	125	118	media	125	117

(o-ó)

semje	122	126	bidje	121	124
lurre	137	143	udse	124	142
ona	122	130	beltza	120	126
ollwe	114	139	baswe	113	125
media	121	131			

Hiru silabakoak

(o-ó-o)

ogiye	109	116	112	erriye	115	126	117
txerriye	116	120	109	katube	117	120	113
egurre	114	125	119	mutikwe	120	124	111
odola	114	120	117	txakurre	98	106	102
gizona	104	107	102	belarra	109	112	108
patata	118	120	109	errota	116	120	107
taberna	114	120	111	alaba	114	119	116
arreba	117	126	115	alkatje	116	120	117
sukaldje	111	114	113	afaiye	113	123	119
bazkaiye	121	125	114	ollaskwe	126	139	124
langillje	124	131	124	media	114	120	113

(ó-o-o)

tokiye	129	120	122	saarra	109	106	105
adarra	110	105	106	intxorra	122	117	107
lapurre	119	117	110	meikube	128	120	114
media	119	114	110				

Lau silabakoak

(o-ó-o-o)

teillatube	127	132	124	121	alargune	115	128	122	115
abeatsa	123	132	125	122	lengusube	127	137	120	117
media	123	132	122	118					

LIZARRAGA

Silaba bikoak

(o-ó)

eltzje	96	125	lurre	109	115
udse	105	112	ona	112	117

katuak dauden, erregela batzuren arabera ezartzea ditugu. Erregelek silaben kontaktetarako norabidea adierazi behar dute eta zein silabatan ezarri behar den...

beltza	104	130		aза	107	114
semje	113	121		bidje	109	114
gaztje	103	117		astwe	92	117
ollwe	100	125		katwe	92	116
burwe	99	109		lekwe	99	114
baswe	94	115		planta	102	111
media	102	117				

Hiru silabakoak

(o-o-ó)						
olloskwe	92	104	112	langillje	97	104 119
lenguswe	99	101	118	koñadwe	98	106 121
neskatwe	95	109	113	ogiye	93	101 118
erriye	97	102	117	txerriye	101	100 119
egurre	89	102	109	lagune	87	99 104
mutikwe	96	113	118	odola	89	100 107
sagarra	92	94	107	txakurre	94	104 110
adarra	90	99	116	gizona	90	100 104
intxorra	94	100	109	belarra	94	104 115
lapurre	97	104	111	patata	91	109 114
errota	107	120	128	taberna	100	105 116
alaba	96	98	107	arriba	90	102 106
alkatje	88	99	120	sukaldje	94	97 109
meikube	93	96	109	media	94	102 113

Lau silabakoak

(o-o-o-ó)						
alargune	103	102	111	123	abeatsa	99 100 101 111
arratoye	93	97	104	113	media	98 99 105 115

4.4. Jose Ignacio Hualde (1996, 1997)

J.I. Hualdek, bere aldetik, Harry van der Hulst-en *Word Prosodia Systems in the languages of Europe* lanean ('Basque accentuation' izenburuko 14. atala, 28. orrialdea), horrela diosku:

"14.6. The Southern High Navarrese type.

In an area of western Navarre close to the present-day southern boundary of the Basque language (Sakana Valley), we find varieties where primary accent generally falls (noncontrastively) on the initial syllable and a secondary accent falls on the last syllable of the phrase; e.g. *kárrikà* 'street', *kárrikèk* 'streets'. In words of four or more syllables, the primary accent may fall on either the first or the second syllable; e.g. *árbizuarrà* or *arbizuarrà* 'person from Arbizu' (cf. Hualde 1991: 173). There are no accentual oppositions. It is not clear whether the alternation between initial and post-initial accent serves pragmatic or rhythmic functions in these varieties".

Eta autore bera (1997) antzeko zerbait esatera datorkigu Euskal Herriko Erdialdeko azentuera aztertzen ari delarik:

"Goi-nafarreraren hego mendebaldeko eskualdeetan (Sakana, bi Basaburuak eta Imotz) beste azentu sistema bat aurkitzen dugu. Hemen azentua oso aldakorra da, baina orohar lehen edo bigarren eta azken silaban ezartzen da. Sistema honek antz handiagoa du Erdialdeko sistemekin Ekialdekoekin baino,

eta horregatik sartu dugu kapitulu honetan. Baina, egia esan, kapitulu berezi bat mereziko luke, arau nagusia desberdina baita. Erdialdeko azentueran *gizona* dugun bitartean, Nafarroako eskualde honetan *gizoná* dugu normalean”. (Hualde, 1997, 109-110)

4.5. Iñaki Gaminde (1997)

Oraingoan, Gamindek “Nafarroako azentuera desberdinei buruzko ikuspegi orokorra emateko entseiuá” aurkezten digu, eta gure azterketaren esparruari dagokionez, Ergoiena (Lizarraga, Dorrau, Unanu), Aranaz (Etxarri, Arbizu, Lakuntza) eta Arakilgo (Arruazu, Uharte, Irañeta, Ihabar, Urritzola) eremuak bereizten ditu. Eta berak proposatzen duen azentua txertatzeko eremuen arabera banaketan, norabidea eta azentua txertatzen den silabaren kokaguneari erreparatuz, Sakana osokoa (Burunda, Ergoiena, Aranaz eta Arakil) BE [1 bariatatean sartzan du, hots, azentu ez-bereizgarria izango genuke eta honen eremua erroa litzateke, erroaren lehen silaban kokatzen duelarik azentu nagusia. Eta bertan jaso dituen burutzapenak ondorengoak, besteak beste:

- Lizarraga: *árdwe, áza, béiye, biúdwé, áittunè, álabà, ámiñè, álobiyè, áurpeiyè, ázazkalà, bélarriyè, afáeyè, arágyè, ...*
- Lakuntza: *árdwe, ástwe, áza, béiye, áintxorrà, áittunè, álabà, ámiñè, álobiyè, áurpeiyè, bélarriyè, afáayè, arágyè, arrótobìè, ...*
- Arruazu: *sémiak, sémiarì, sémianà, sémiandakò, ...*

5. SAKANA ERDIALDEKO AZENTUERAREN DESKRIBAPENA

Deskribapen hau egiteko, gorago nioen moduan, azterketa esparruko hiru herritan (Etxarri, Arbizu, Uharte) galdetegi zehatza pasatu eta grabatu dut. Hiru herri hauen aukeraketa, bi irizpide desberdinen arabera izan da: geografikoa lehena, hots, Etxarri eta Uharte aztertutako eremuaren bi muturretan daudenez, horrela errazago nabari zitekeen desberdintasuna, hauxe balego; eta sailkapen dialektologikoei buruzkoa bestea, Etxarri eta Arbizuren artean izan baita kokatua sarritan gipuzkera eta ipar goi-nafarreraren arteko muga. Egokitutako galdetegiak ondorengo aldagaiak izan ditu kontuan: bi silabatako hitz mugatu eta mugagabeak, hiru silabatakoak, lau silabatakoak, deklinabide morfema desberdinak erantsirik, galdetzaileak, azentu bereizgarria, zenbait antroponimo, maileguak eta intonazioa.

Eta galdetegi honen emaitzek adierazitakoaz gain, belarriak berak alde batetik, eta grabatu gabeko hainbat eta hainbat galderaren erantzunak bestetik, erakutsi didatena aurkeztuko dut hasteko. Ondorengoak, ikerketa akustikoak egiteko *Ahotsa* programa informatikoaren emaitzak dira, baina gogoratu hiru herrietako beste hainbeste informanteren azentuaren emaitzak baino ez direla.

Sakana erdialdeko azentuera, belarriak eta hainbat informatzailek erantzun didatenaren arabera, orokorrean, hitza soilik hartzen dugunean esan nahi da, paroxitonoa⁵ dugu, [-2] motatakoa alegia, Hualdek (1996, 27) *The*

⁵ Horrela jaso dute E. Maiz eta I. Mundiñanok (1998, 38) ere: “Bertako hizkeraren joera nagusia, azentua kokatzeko lehentasunez ari garela, azken aurreko silaban agertzekoa da. /pantalóna/, /étxie/, /txingurríye/, /águé/ (...) /básue/, /lána/”.

Northern High Navarrese type moduan aurkezten duenaren parekoa. Antzeko zerbait esaten dute Hego Nafarrera Garaiaiko azentuaz EDH-n (1987, 206):

“-Hitzaren nominatibo mugagabeak determinatzen du hitz horren nominatibo singular eta pluralaren azentu-oinarria.

-Hitz soilaren azentua azken silaban erabakitzen da: azkena bokal silabikoa bada, azentua paroxitonoa da. Azken silaba kontsonantez edo bokalerdiz bukatzen bada, oxitonoa: *axúri*, *láñu*; *gogór*, *artzái*, *elkár*”.

Horrela beraz, Hualdek⁶ dioskun bezala, kontsonantez bukatzen diren hitz ez flexionatuek, mugatugabeek, azentua azken silaban jasotzen dute. Aurreraxeago, Ultzamako⁷ azentuari buruz ari delarik, kontsonantez bukatzeaz gain, bokal erdiz bukatzen direnek ere, azken silaban jasotzen dutela azentua gaineratzen du, eta Sakana erdialdean ere horrela gertatzen da zenbaiten ahotan, beste hainbatenean, aldiz, paroxitonoa ere entzun daiteke-
elarik:

<i>étx[j]e</i>	<i>gizón</i>
<i>gizóna</i>	<i>lau gizón</i>
<i>gizónak</i>	<i>bi egúr, egúrre</i>
<i>gizonákin</i>	<i>aitzúr, aitzúrre</i>
<i>gizonandáko</i>	<i>ostóts, ostótsa</i>
<i>emezórtzi</i>	<i>akétz, akétza</i>
<i>emezortzigérna</i>	<i>makíl, makille</i>
<i>kóosti, koostíe</i>	<i>amurréi, amurréye</i>

Baina: *urdéi/úrdei, amurréi/amúrrei, ...*

Eta bokal erdiz ari garenez, deklinabideko *r*-dun morfemak eranstera-koan, dardarkariaren galerak glideak sortzen ditu eta, berarekin batera, azen-
tua azken silabara pasatzen da:

<i>gizóna</i>	<i>gizonái</i> (gizonari), <i>gizonán</i> (gizonaren)
<i>áma</i>	<i>amái, amán</i>
<i>étx[j]e/a</i>	<i>etxiéi</i> (etxeari), <i>etx[j]én</i> (etxearen), <i>etx[j]á</i> (etxera)
<i>mendiye/a</i>	<i>mendiái, mendián, mend[j]é</i> (mendira) baina <i>mendíra</i> Arbizun
<i>zúl[w]e/a</i>	<i>zul[w]éi, zul[w]én</i> (zuloaren), <i>zul[w]á</i> (zulora)
<i>mundúbel/ba</i>	<i>mundubái, mundubán</i> (munduaren), <i>mund[w]é</i> (mun- dura) baina <i>mundúra</i> Arbizun
<i>lúrre/a</i>	<i>lurrái, lurrán</i> (lurraren), <i>lurr[j]á</i> (lurrera)

⁶ Hualde (1996, 27): “In most of the Basque-speaking area of Navarre, accentuation is non-contrastive. The accent normally falls on the penultimate syllable of the word (Michelena 1972), as in the following examples, from the variety of the Baztan Valley (Salaburu 1984: 307-317, cf. also Hualde 1991a: 176): *étx[j]a* ‘the house’, *gizóna* ‘the man’, *gizónak* ‘the men’, *gizonarékin* ‘with the man’, *gizonarendáko* ‘for the man’, *bemezortzigarréna* ‘the eighteenth’. Uninflected consonant-final words may optionally receive final accent: *lau gizón* – *lau gizón* ‘four men’. For pragmatic or sentence-level reasons, the accent may sometimes fall on a syllable other than the penultimate”.

⁷ Hualde (1996, 27): “A similar system is found in the Ultzama Valley (Izagirre 1966; Ibarra 1994). In this dialect too, words are generally accented on the penultimate syllable: *gorósti* ‘holly bush’, *gorostíe* ‘the holly bush’; but uninflected words ending in a consonant or glide always receive final accent (not optionally like in Baztan): *egún* ‘day’, *okarán* ‘plum’, *amorrái* ‘trout’”.

5.1. Deklinabide atzizkiekin

Jarraian, deklinabideko kasu guztien morfemak kontuan izanik, oinarri lexematiko guztien emaitzak emango ditut:

<i>áma</i>	<i>séme</i>	<i>érrí</i>	<i>ásto</i>
<i>áma</i>	<i>sémie, -ia</i>	<i>erríye, -a</i>	<i>ástue, -a</i>
<i>ámak</i>	<i>sémiek</i>	<i>erríyek</i>	<i>ástuek</i>
<i>amáí</i>	<i>semiéí, -ái</i>	<i>erríyái</i>	<i>astuéí, -ái</i>
<i>amán</i>	<i>semién, -án, -iáin</i>	<i>erríyán, -yáin</i>	<i>astuén, -án, -áin</i>
<i>plazáko</i>	<i>etxéko</i>	<i>erríko</i>	<i>zulóko</i>
<i>plazáti</i>	<i>etxéti</i>	<i>errítí</i>	<i>zulóti</i>
<i>plazá</i>	<i>etxiá</i>	<i>erríe, -íra</i>	<i>zuluá</i>
<i>plázan</i>	<i>étxien</i>	<i>erríyen</i>	<i>zúlúen</i>
<i>amangána</i>	<i>semie(a)ngána</i>	<i>erríyangána</i>	<i>astue(a)ngána</i>
<i>amandáko</i>	<i>semiendáko</i>	<i>erríyandáko</i>	<i>astuendáko</i>
<i>amáki</i>	<i>semiéki, -áki</i>	<i>erríyáki</i>	<i>astuéki, -áki</i>
<i>amangáti</i>	<i>semie(a)ngáti</i>	<i>erríyangáti</i>	<i>astue(a)ngáti</i>
<i>amangáandi</i>	<i>semie(a)ngáandi</i>	<i>erríyangáandi</i>	<i>astue(a)ngáandi</i>
<i>ámas</i>	<i>sémes</i>	<i>érris</i>	<i>ástos</i>
<i>amáik</i>	<i>seméik</i>	<i>errík</i>	<i>astóik</i>
<i>ametáko</i>	<i>semetáko</i>	<i>errítáko</i>	<i>astotáko</i>

<i>lárru</i>	<i>gizón</i>	<i>artzéi</i>
<i>larrúbe, -a</i>	<i>gizóna</i>	<i>artzéye, -a</i>
<i>larrúbek</i>	<i>gizónak</i>	<i>artzéyek</i>
<i>larrubái</i>	<i>gizonái</i>	<i>artzeyái</i>
<i>larrubán, -áin</i>	<i>gizonán, -áin</i>	<i>artzeyán, -áin</i>
<i>larrúko</i>	<i>egunéko</i>	<i>zeléiko</i>
<i>larrúti</i>	<i>egunéti</i>	<i>zeléitti</i>
<i>larrué, -úra</i>	<i>eguniá</i>	<i>zeléire</i>
<i>larrúben</i>	<i>egúnien</i>	<i>zeléyen</i>
<i>larrubangána</i>	<i>gizonangána</i>	<i>artzeyangána</i>
<i>larrubandáko</i>	<i>gizonandáko</i>	<i>artzeyandáko</i>
<i>larrubáki</i>	<i>gizonáki</i>	<i>artzeyáki</i>
<i>larrubangáti</i>	<i>gizonangáti</i>	<i>artzeyangáti</i>
<i>larrubangáandi</i>	<i>gizonangáandi</i>	<i>artzeyangáandi</i>
<i>lárrus</i>	<i>gizónas</i>	<i>artzéyes</i>
<i>larrúik</i>	<i>gizónik</i>	<i>artzéirik</i>
<i>larrutáko</i>	<i>gizonetáko</i>	<i>artzeitáko</i>

Zenbait kasutako bigarren burutzapenak, asimilazioaren kasuan bezala, mugatu singularrarekin asimilatzen ez dutenen emaitzak dira, hau da, Arbizu, Dorrau, Unanu eta Arruazu: *sémia, erríya, larrúba, artzéya, semiáí, astuáí, semián, astuán, erríra, larrúra, semiangána, astuangána, ...* Baina ikusten denez, adlatiboko kasuetan baino ez dira desberdintzen azentuari dagokionez.

Eta hemen jaso ditudan emaitza hauek, berdin errepikatzen dira hiru edo silaba gehiagoko lexemen kasuan: *tarratulubáki, alkatíendáko, muturzikiñangándi, itturriélitturríra, ...*

Bestalde, egun esan daiteke azentuak bereizten dituela absolutibo eta adlatibo kasuetako singularrak, lehentxoago aipatu lau herri horietan *-e* eta *-o* bokalez amaituriko hitzen burutzapenetan, eta esparru osoan *-a* bokalaz amaiturikoetan, bokal arteko dardarkari xamurraren galerak sorturiko diptongo bigarrenkariak direla eta. Gauza bera gertatzen da, inesibo eta edute genitiboaren singularretan ere, baina oraingoan dardarkari xamurraren galerak bokal geminazioa eta ondorengo murrizketa gauzatu dituelako, eta gainera *-a* bokalaz amaituriko hitzen kasuan, esparru osoan gertatzen da azentu bereizgarriaren bilakabidea, eta beste lau herrietan (Etxarri, Lizarraga, Lakuntza, Uharte), berriz, *-e* eta *-i* bokalez bukatu-riketoetan oraingoan:

<i>léz[j]a</i>	(lezea)	<i>lez[j]á</i>	(lezera)	(Arbizu, Unanu, Dorrau eta Arruazu)
<i>zúl[w]a</i>	(zuloa)	<i>zul[w]á</i>	(zulora)	(Arbizu, Unanu, Dorrau eta Arruazu)
<i>pláza</i>		<i>plazá</i>	(plazara)	(esparru osoan)
<i>Bárga</i>		<i>Bargá</i>	(Bargara)	(esparru osoan)
<i>plázan</i>		<i>plazán</i>	(plazaren)	(esparru osoan)
<i>Bárgan</i>		<i>Bargán</i>	(Bargaren)	(esparru osoan)
<i>étx[j]en</i>	(etxean)	<i>etx[j]én</i>	(etxearen)	(Etxarri, Lizarraga, Lakuntza, Uharte)
<i>zúl[w]en</i>	(zuloan)	<i>zul[w]én</i>	(zuloaren)	(Etxarri, Lizarraga, Lakuntza, Uharte)

Ildo beretik jo dute E. Maiz eta I. Mundiñanok (1998, 39) *-a* bokalaz bukatu-rikoko hitz erroei dagokienez, ondoko koadroa erakusten dutelarik:

mug. sg. (nor/zer)	adlatiboa (nora)	lokatiboa (non)	genitiboa (noren) ⁸
<i>/bórdá/</i>	<i>/bordá/</i>	<i>/bórdan/</i>	<i>/bordaán/</i>
<i>/eskóla/</i>	<i>/eskolá/</i>	<i>/eskólan/</i>	<i>/eskolaán/</i>
<i>/féstá/</i>	<i>/festá/</i>	<i>/féstán/</i>	<i>/festaán/</i>
<i>/juérga/</i>	<i>/juergá/</i>	<i>/juérgan/</i>	<i>/juergaán/</i>
<i>/déndá/</i>	<i>/dendá/</i>	<i>/déndan/</i>	<i>/dendaán/</i>
<i>/dántza/</i>	<i>/dantzá/</i>	<i>/dántzan/</i>	<i>/dantzaán/</i>

⁸ Ez da ongi ulertzen zergatik geminatzen diren edute genitiboaren emaitzak eta ez adlatiboarenak, edo alderantziz. Nire ustean, nabaria da burutzapen horietan bokal arteko dardarkari xamurraren erorketak eragindako bokal geminazioa: $A r A > AA$ bilakabidea gertatzen delarik adlatiboaren kasuan, eta $V_1 r V_2 > V_1 V_2 > V_1 V_1$ bilakabidea, berriz, edute genitiboarenean.

5.2. Sandhi, eratorpen eta konposaketan

Sandhi, eratorpen eta konposaketaren kasuan ere, berdin gertatzen da, hots, paroxitonia da nagusi:

méñdi, mendíye, mendiyártan (mendi hartan)
moméñtu, momentúbe, momentubúre/a (momentu hura)
ogéi, ogeitamálau
bizér, bizerzúbe
fundeméñtu, fundamentubéko, lotsabéko (lotsabageko)
káka, kakakúrre (kakagura), *pixekúrre*
árdi, ardiki, tripéki
étzi, etzidámu
yaniáun, yaniauntzítzi
alúbi, alubittopórri
gázta, gaztanbéra
txóri, txoribúru, artabúru

‘Bat’ mugatzailearekin sortutako sandhi-etan emaitza desberdinak suertatzen dira, mugatutako lexemaren bukaeraren arabera, eta antzeko zerbait esan daiteke mugatzaile pluralari dagokionean:

ama bat: *amát*
 seme bat: *semiát*
 mendi bat: *mendíbet*
 zulo bat: *zuluát*
 katu bat: *katúbet*
 egun bat: *egúnbet*
 afa(r)i bat: *afáibet*
 jende batzuk: *jendiátzuk*
 jende batzuekin: *jendiatzúki*
 jende batzuegana: *jendiatzungána*

5.3. Maileguekin

Badira, bestalde, aipatu paroxitoniaren nagusitasuna azpimarratzen duten beste zenbait gertaera, gazteleratik mailegaturiko hitzekin batik bat. Gazteleraz oxitonoak diren zenbait izen nagusi, paroxitonoak ahoskatzen dira Etxarrin, etxearen erreferentzia gehitzen zaienean:

Lartanéko Mártin
Mextrubenéko Jóxe
Iguén Rámon
Insaustín Férmin
Errexkiñen Migel
Timutióñ Juákin

Eta hauetaz gain, azterketa esparruko hizkeran nahiko fosilizaturik geratu diren gaztelerazko gutxienez beste hiru hitz proparoxitono:

(i)gualméñte Ohera joaterakoan, gau ona pasatzeko eskein duenari ematen zaion erantzuna dugu hauxe.

malaménte Gaztelerazko ‘en vano’-ren zentzua du: *Esan da esan da, malaménte! Malaménte abil!*

makíne (máquina), *makínétu* aditza asko erabili izan da nekazarien artean, ‘makinez soroa lantzeko prestatu’ esan nahi duelarik.

Era berean, batzuetan erabiltzen dira gaztelerako zenbait hitz azentua euskaldundua dutelarik:

A, ze pájaro ago eiñik i! (Ah, zer ‘pájaro’ hago eginik hi!)
Telefónue geizki ziillek azkenontan!

5.4. Toponimian

Toponimoei dagokienez, asko eta asko dira azentu paroxitonoarekin ahoskatzen direnak. NTM-n (1993, XII, 32-59) jasotako ia guztiak horrelakoak ditugu Etxarrirako. 260 toponimo inguru jaso dituzte aipatu lanean eta horietariko gehienei, 180ri gutxi gora behera, azentu paroxitonoa ezarri diete, 30 azken silaba kontsonantez edo bokalerdiz amaiturikoak dira eta azentu oxitonoa ezarri diete, 32 azenturik gabe jaso dituzte eta gainerakoei beste azentu mota jarri diete. Hona hemen horietako zenbait:

<i>Agaabiya</i>	<i>Aizlumépe</i>	<i>Akítu</i>
<i>Alléko</i>	<i>Alchorróxpe</i>	<i>Altzárte</i>
<i>Altzituérta</i>	<i>Altzituertachiki</i>	<i>Amarriturrita</i>
<i>Antonchóla</i>	<i>Aangórta</i>	<i>Angortachiki</i>
<i>Arginburúta</i>	<i>Arisoróta</i>	<i>Aizálko</i>
<i>Arizbiyurriéta</i>	<i>Arkuéta</i>	<i>Arluzápe</i>
<i>Arrasasoóta</i>	<i>Artasóro</i>	<i>Archúlo</i>
<i>Áska</i>	<i>Askápe</i>	<i>áskue</i>
<i>Astíchu</i>	<i>Auntzéche</i>	<i>Auntzechezarra</i>
<i>Axaizulóta</i>	<i>Azkonarzulóta</i>	<i>Baatzéta</i>
<i>Basaréta</i>	<i>Basáte</i>	<i>Basopokále</i>
<i>Basozíarra</i>	<i>Baztarróla</i>	<i>Bekóla</i>
<i>Biondasáre</i>	<i>Bordazélei</i>	<i>Danbolinchúlo</i>
<i>Danbórrro</i>	<i>Elbeikochúlo</i>	<i>Elizkúnza</i>
<i>Elkórri</i>	<i>Elurzulóta</i>	<i>Epéle</i>
<i>Epeláundi</i>	<i>Epelchiki</i>	<i>Épéya</i>
<i>Épertéita</i>	<i>Erága</i>	<i>Érdóntza</i>
<i>Érrekabúru</i>	<i>Errotaberríye</i>	<i>Ezkibel</i>
<i>Fagaméndi</i>	<i>Fagamendikoarítze</i>	<i>Fandalamikel</i>
<i>Galardigáña</i>	<i>Galardikogoyiéna</i>	<i>Galtzinlábe</i>
<i>Illérra</i>	<i>Illerrabáztar</i>	<i>Illerrazábal</i>
<i>Lizarrústi</i>	<i>Malkarraméndi</i>	<i>Zugarréta</i>
<i>Alchorróch</i>	<i>Alchurdín</i>	<i>Ambéltz</i>
<i>Archán</i>	<i>Axkoói</i>	<i>Astuéin</i>
<i>Bizkáin</i>	<i>Enfermogúutz</i>	<i>Erregeembidezár</i>
<i>Errekaliór</i>	<i>Errotéi</i>	<i>Itrubéi</i>
<i>Iturchár</i>	<i>Kalamurchéi</i>	<i>Kalelantéei</i>
<i>Kostuél</i>	<i>Lorenzomonttéi</i>	<i>Lurlói</i>
<i>Mandoibéi</i>	<i>Mugaráts</i>	<i>Oosóin</i>

Ergoienako hiru herrietan ere ugari dira toponimo paroxitonoak, edo azken silaba trabatuena kasuetan, oxitonoak (NTM, 1992, VIII, 30-92):

DORRAU	UNANU	LIZARRAGA
<i>Eixatóki</i>	<i>Eixetóki</i>	<i>Abríngo erréka</i>
<i>Echorróngo pása</i>	<i>Aitzérte</i>	<i>Aixlumbeko bárga</i>
<i>Amarrittúrri</i>	<i>Alditzérgo itzéla</i>	<i>Andremáintza</i>
<i>Arbetonéta</i>	<i>Animazúbi</i>	<i>Antsotéla</i>
<i>Areñeibúru</i>	<i>Arbálda</i>	<i>Azpéta</i>
<i>Arkárte</i>	<i>Arbaldabaztarréta</i>	<i>Arrangárte</i>
<i>Arketzagáña</i>	<i>Arbichíchi</i>	<i>Arriyasóro</i>
<i>Askúdi</i>	<i>Argárbi</i>	<i>Archúlo</i>
<i>Atazábal</i>	<i>Aritzáundi</i>	<i>Astapórtu</i>
<i>Atazabálgo gambéla</i>	<i>Aritzéta</i>	<i>Balkóna</i>
<i>Baltéiko bórdak</i>	<i>Arrigórri</i>	<i>Batzarraméndi</i>
<i>Basochíki</i>	<i>Arróndo</i>	<i>Benitombórda</i>
<i>Bernasóro</i>	<i>Arzibita</i>	<i>Elizázpi</i>
<i>Biorméiza</i>	<i>Axkárdi</i>	<i>Elchorroxgobárga</i>
<i>Elizálde</i>	<i>Azkonarchulóta</i>	<i>Errekasálde</i>
<i>Galtzizépe</i>	<i>Bekoportalánga</i>	<i>Errotamúno</i>
<i>Orríz</i>	<i>Bazkaláitz</i>	<i>Eguál</i>
<i>Tozinolantéi</i>	<i>Elkétz</i>	<i>Illerréi</i>
<i>Sangéi</i>	<i>Fontarrón</i>	<i>Kortaakús</i>
<i>Arbiltzáu</i>	<i>Irristagór</i>	<i>Lezebéltz</i>

Gainerako herrietan ere, gauza bera gertatzen da, hurrengo toponimoen zerrendan (NTM, 1993, XII, 64-170) ikus daitekeen bezala:

ARBIZU	LAKUNTZA	ARRUAZU	UHARTE
<i>Akarrúntza</i>	<i>Aldába</i>	<i>Andabúru</i>	<i>Abelarráte</i>
<i>Ansoóta</i>	<i>Aldabarróndo</i>	<i>Argáña</i>	<i>Aginéna</i>
<i>Apezaansoroburúta</i>	<i>Aldáye</i>	<i>Arlízta</i>	<i>Agiri</i>
<i>Arángun</i>	<i>Algórri</i>	<i>Arzubita</i>	<i>Aitzárte</i>
<i>Arbíbil</i>	<i>Arángun</i>	<i>Atabérri</i>	<i>Aitzartebárne</i>
<i>Arbotóna</i>	<i>Ardanchíki</i>	<i>Atázar</i>	<i>Aitzáundi</i>
<i>Arratebéltzéta</i>	<i>Arnabarréta</i>	<i>Aubigáñe</i>	<i>Aitzpuntachórroch</i>
<i>Arrospíde</i>	<i>Arnabáztar</i>	<i>Aunzsáre</i>	<i>Aiztóndo</i>
<i>Artáakar</i>	<i>Artázil</i>	<i>Basochíki</i>	<i>Akibárra</i>
<i>Burrukálde</i>	<i>Askálas</i>	<i>Batzalárre</i>	<i>Aldáya</i>
<i>Eguerdiko ziórra</i>	<i>Atrémin</i>	<i>Beitési</i>	<i>Amurléku</i>
<i>Elizattiki</i>	<i>Aubigáñe</i>	<i>Bidegurtzéta</i>	<i>Amórra</i>
<i>Errekabitérte</i>	<i>Azakimákur</i>	<i>Elórdi</i>	<i>Amorrokostápe</i>
<i>Erróta</i>	<i>Aixerizulóta</i>	<i>Erbillérrri</i>	<i>Amúrgin</i>
<i>Ezkiéte</i>	<i>Baatzerrékálde</i>	<i>Ermiñóndo</i>	<i>Andáraz</i>
<i>Ezpiézpe</i>	<i>Bierróndo</i>	<i>Erósu</i>	<i>Antsábe</i>
<i>Faachábal</i>	<i>Bidézar</i>	<i>Errázta</i>	<i>Apatégi</i>
<i>Ferdáia</i>	<i>Bilezéta</i>	<i>Eúpar</i>	<i>Sastráka</i>
			<i>de apatégi</i>
<i>Galbayoóta</i>	<i>Debáta</i>	<i>Itsusóndo</i>	<i>Aiztarbíde</i>
<i>Geñolárrri</i>	<i>Dezaldápa</i>	<i>Iruéta</i>	<i>Arbillága</i>
<i>Illérdi</i>	<i>Elixéto</i>	<i>Izúrtze</i>	<i>Arribotónáundi</i>

<i>Inchúspe</i>	<i>Epelarrikéta</i>	<i>Juanabránze</i>	<i>Arbotonchiki</i>
<i>Irúchin</i>	<i>Erdikéta</i>	<i>Kaskállu</i>	<i>Ardantzarréta</i>
<i>Ichési</i>	<i>Erlozábal</i>	<i>Kuchillápe</i>	<i>Armonáundi</i>
<i>Itzélpe</i>	<i>Erróta</i>	<i>Larráñek</i>	<i>Arpélu</i>
<i>Kanposantúba</i>	<i>Espilléta</i>	<i>Larrakárte</i>	<i>Arpelubárna</i>
<i>Kañáda</i>	<i>Illarrazeláizte</i>	<i>Larrañóndo</i>	<i>Arpútzu</i>
<i>Kaxárna</i>	<i>Illundeitte</i>	<i>Maxumártin</i>	<i>Arranchúche</i>
<i>Leziza ubéldia</i>	<i>Irríste</i>	<i>Muxingomúño</i>	<i>Arratebérrri</i>
<i>Loonchiki</i>	<i>Irumugarriéta</i>	<i>Oyarzábal</i>	<i>Archuetakolépo</i>
<i>Arnátz</i>	<i>Iruzulochikíta</i>	<i>Pilipittúrri</i>	<i>Atakoichezár</i>
<i>Askaláts</i>	<i>Larlúz</i>	<i>Arnátz</i>	<i>Atazelái</i>
<i>Loñátz</i>	<i>Iturrichár</i>	<i>Artátz</i>	<i>Bizkaingáin</i>
<i>Multtiminttéi</i>	<i>Maxamartín</i>	<i>Gurutzezár</i>	<i>Elkéiz</i>
<i>Ondátz</i>	<i>Uskáin</i>	<i>Itsasgáin</i>	<i>Burusóil</i>
<i>Sandindéi</i>	<i>Sandindéi</i>	<i>Izurkáin</i>	<i>Fagomiár</i>

5.5. Etxeen izenak

Azterketa esparruko herrietako etxeen izenak ere, azentu paroxitonoarekin ahoskatzen dira, gehienak, hori bai, genitiboaren marka, lekuzkoa zein edutezkoa, daramatelarik. Hona jarraian herri bakoitzeko zenbait etxeren izenak:

ETXARRI	LIZARRAGA	DORRAU	UNANU
Emañána	Motxaliána	Baldána	Bikayenékua
Alpargatteróna	Merzeróna	Erreróna	Nabarróina
Mextrubenékue	Xantubána	Juanbinitóina	Mariéna
Donpolonékue	Kaxintána	Zurgiñéina	Danboliñéna
Insaustína	Migelantonéna	Patxikóna	Kristoaltxóna
Kalekoanttonióna	Pastorréna	Txantxilléna	Kittuéina
Kalekomartinána	Rojóna	Matiesáina	Bizentána
Urnabanékue ⁹	Meikubána	Pedromigeléna	Frairianékua
Juakiñenékue ¹⁰	Martinjuakiñéna	Iturrína	Milikóina
ARBIZU	LAKUNTZA	ARRUAZU	UHARTE
Errekondókua	Andresanékue	Elontoréna	Aldaiaréna
Pepéna	Arroxána	Arozanékua	Echabarriréna
Markoséna	Fermiñéna	Anduezanékua	Damboliñaréna
Boniñóntxa	Erreróna	Tresanékua	Burugorriñenecóa
Exkerrána	Agedanékue	Milikonékua	Jualizéna
Tablajeruána	Emáña	Chimonéna	Borboistonecóa
Lonbréna	Elzagillénékue	Bisieréna	Ostatuzarra
Juananékua	Silbestréna	Argiñenékua	Zubipúnta
Kataliñenékua	Chanconékue	Churioréna	Milchonéco

⁹ Etxarriko Juana Ijurko Murillok emandako etxeen zerrendan ageri da etxe izen hau, eta 1743an Marina Miguel de Etxarri Galarza bertan bizi zen.

¹⁰ Aureko ohartxoko informatzaile berberak diosku 1771 urtean M^a Francisca Ijurko Garzandia bertan bizi zela.

6. SAKANA ERDIALDEKO AZENTUAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Esan daiteke hiru direla Sakana erdialdeko azentueraren arau orokorrak, kontuan izanik aztertutako hitzak hitz soilak direla, eta gainera, hitzun bate-tik bestera nahiko aldakorrek suerta daiztekeela, intonazioaren arabera. Hala ere, oinarrizko ondorengo hiru arau hauek azalduko ditut, azterketa esparruko azentueraren ezaugarri nagusi bezala:

- Sakana erdialdeko azentuak ez du balio bereizgarri zuzenik¹¹ esparru osoan, ez da, beraz, zenbait deklinabide kasuetako sg/pl edo abs/erg pluralen arteko bereizketa azentuaren medioz egiten: *alábak ekar du* (sg), *alábak ekar dub(i)e* (pl) (*Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte*); *semién andregiyek esan dau/debie* (*Etxarri*); *alábak esan dau* (erg-sg), *alábak esan debie* (erg-pl), *alábak etor die* (abs-pl) (*Etxarri*). Jaso ahal izan dudana balio bereizgarriko kasu bakarra *íye* (ea, ia) partikulari dagokio:

Iyé (ea) ≠ *íye* (ia)

Iyé etortzen dien (Ea etortzen diren)

Ezta íye jendeik etorri (Ez da ia jenderik etorri)

- Ez-markatuak diren lexemak, hau da, bokalez bukatzen diren hitzak, paroxitonoak dira: *tabérna, lengúsu, ollésko, alába, izéba, ógi/ogíye, kátul/katúbe, ...*

- Bokalerdiz edo kontsonantez bukatzen diren hitzak, aldiz, oxitonoak dira orokorrean¹², hots, azken silaban daramate azentua: *gizón, egún, aitzúr, mutíl, urdúi, arratói, arrazói, ...*

Eta hauek arau orokorrak badira ere, zenbait testuingurutan, beste azentuera mota entzun daiteke, batez ere, hitzunik harridura kutsua adierazi nahi duenean. Eta aipatu harridura kutsu hori ez da beti oso nabaria, harridura izan gabe ere, zerbait begibistakoa dela adieraztean ageri daiteke modu berean. Jo dezagun, esaterako, informatzaile bati euskaraz ‘*oreja*’ nola esaten den galdetzen diogula. Honek, batez ere galdera horrekin zer lortu nahi den oso ondo ulertzen ez badu, erdi harriturik, edo gutxienez ‘*Nola izango da, bada?*’ pentsatuz, *bélarriyè* erantzungo du, eta gauza bera jarraian galdetzen zaizkion beste guztien kasuan. Erantzuna nahiko argia edo begibistakoa denean, halako azentuera nagusitzen da esparru osoan:

– Nok eman duuzu/dizu paga?:	– <i>ámiñèk!</i> (Nork eman dizu paga?)
– Zeiñek iraz d(a)u partidue/a?:	– <i>Rétegièk!</i> (Zeinek irabazi du partidua?)
– Nungue/a da zuu/zui aitte/a?:	– <i>Lákuntzekuè/à!</i> (Nongoa da zure aita?)

Horrelaxe du, hain zuzen, jasorik J.I.Hualdek Sakana haraneko azentuera, bi lan ezberdinetan, nahiz eta berak azentuera mota hau eremuko ohizkoa bezala aurkeztu:

¹¹ Balio bereizgarri zuzena esaterakoan, ekidin nahi izan ditut bereziki absolutibo eta adlatiboa, alde batetik, eta inesibo eta edute genitibo kasuetako emaitzak bestetik, hauetan bokal arteko dardarkari xamurraren galerak sortzen baititu sinkretismoak. (ikus lan honetako 9. orrialdea).

¹² Orokorrean jarri badut, toponimian arau honen kontrako hainbat adibide jaso daitezkeelako izan da.

“In an area of western Navarre close to the present-day southern boundary of the Basque language (Sakana Valley), we find varieties where primary accent generally falls (noncontrastively) on the initial syllable and a secondary accent falls on the last syllable of the phrase; e.g. *kárrikà* ‘street’, *kárrikèk* ‘streets’. In words of four or more syllables, the primary accent may fall on either the first or the second syllable; e.g. *árbizuarrà* or *arbizuarrà* ‘person from Arbizu’ (cf. Hualde 1991: 173). There are no accentual oppositions. It is not clear whether the alternation between initial and post-initial accent serves pragmatic or rhythmic functions in these varieties”. (1996, 14. Atala, 28).

“Goi-nafarreraren hego-mendebaldeko eskualdeetan (Sakana, bi Basaburuak eta Imotz) beste azentu sistema bat aurkitzen dugu. Hemen azentua oso aldakorra da, baina orohar lehen edo bigarren eta azken silaban ezartzen da”. (1997, 109).

Nik, jaso ditudan burutzapen guztietan, azentu nagusia lehen silaban doa eta bestea azkenekoan. Eta gainera, lexema soilik, mugagabea, jasotzeko zenbatzailea gehitzen zaionean ere, aipatu begibistakotasuna edo adierazi nahian, emaitza berdina jaso dut behin baino gehiagotan:

- Nola esaten da auskias ‘dos orejas’?: – *Bíbelarrì!*
- Eta ‘dos hijos’?: – *Bísemè!*
- Eta ‘siete hongos’?: – *Zázpionttò!*

Bestalde, funtzio eragilea bete nahian, abisua emateko eta baita harridurazko zenbait adierazpenetan ere, intentsitatea azken silaban ezartzen da, azentuera oxitonoa gauzatuz:

Amá!, Amiñá!, Aittá!, Juanitó!, ... deitzeko erabiltzen dugunean.
Txakurrék!, Kotxié!, ... erne ez dagoen norbaiti abisua emanaz.
Neskatuá!, Bierrík!, Aiaupenani!, ... gertaera baten aurreko harridura azalduz.

7. AZENTUARI BURUZKO GRABAKETAREN EMAITZAK

Aurrekoan esaten nituenak konfirmatzeko balio izan dit, hau da, informatzaileak sistematikoki erantzuten ditu galderak, eta lehenak nolabaiteko harridura edo ‘begibistakotasun’ irudipena sortu badio, hurrengoengan eragina izango du, emaitzak errepikatuko direlarik. Bestalde, jasotako emaitzen arabera, oso zaila suertatzen da azentuaren ezarpena, Etxarrikoaren kasuan bereziki (besteetan ere hala da, nahiz eta ez neurri berdinean izan), intentsitatea neurtzen duen lerroa oso laua agertzen baita, hots, Hz gutxiren desberdintasuna ageri baitute aztertu ditugun emaitzek, jarraian ikusiko ditugun espektrogrametan ikus daitekeen moduan, eta horrek aditzera ematen du ez dela inongo silabaren gailentasun garbirik gertatzen.

Hemen irudikatuko ditudanak horietako batzuk baino ez dira, lehen aipatzen nituen arau edo gertaera nagusi horiek frogatzen dituzten horietakoak, eta bakoitzarekin batera, informatzailea, herria eta galdetutakoa ere agertuko da.

11 burutzapenen espektrogramak jarriko ditut jarraian: 6 Etxarrikoak, 3 Arbizukoak eta beste 2 Uhartekoak.

Grabaketak AIWA VZRS (voice zoom recording system) TP-560 grabagailuaren bitartez egin dira, eta ondoren AHOTSA programa informatikoz


aztertu eta burutzapen bakoitzaren espektrograma atera ahal izan dut, Natxo Urkijo laudiotarraren ezinbesteko laguntzaz.

Aipatu burutzapenak ondorengoak dira:


- Etxarri-Aranatz: /*tabernatit*/, /*malamente zailtziek bei*/, /*lartaneko martin*/, /*igwen ramon*/, /*latximixkekan*/, /*lamar*/.
- Uharte-Arakil: /*mendje noyek*/, /*gizonai man ziok*/.
- Arbizu: /*bi apez*/, /*latximixkekan*/, /*bi amal*/.

7.1. Etxarri-Aranazko emaitzak


Informatzailea: Inozentzia Markotegi Razkin (70 urte). Data: 1999ko irailaren 26a.




Kasu honetan, lau silababo burutzapena dugu (*tabernáti*), baina deklinabideko ablatibo singularraren morfemaz lagundurik. Oso laua ageri zaigu *pitch*-aren lerroa, eta gailentzekotan, hirugarren silaba, *-na-*, gailentzen delarik.




Lau silabatako mailegua dugu oraingo honetan aztergai, esaldi baten barruan txertaturik: *Malamente zailtzie bei!* (Malamente zabiltzate, bai!). Berriro ere, *pitch*-aren lerroaren lautasuna azpimarratzekoa, baina, hala ere, maileguaren hirugarren silaba, *-men-*, gailenduz oraingoan ere.




Martin antroponimoaren burutzapena hartu dut hemen azteragai, *Lartaneko Martin* (Lartanekoa, Etxarriko etxe baten izena dugu). Hitz oxitonoa gazteleran, eta paroxitonoa Etxarriko burutzapenetan, espektrograma honetan, oso nekez bada ere, ikus daitezkeen moduan. Berriro ere, aipatzekoa *pitch*-aren lautasuna.



Aurrekoan esandakoa errepika daiteke, baina oraingoan antroponimoa aldatu dut, *Iguen Ramon*. *Iguen* (Igoaren) *etxie*, Etxarrikoa da. Nahiz eta hau ere jatorriz oxitonoa izan, espektrograman, berriro, paroxitonoa ageri da, era ez oso argian bada ere.




Bost silabatako hitza, *atximixkekan* (atximurka), hartu nahi izan dut oraingoan, Arbizon ere errepikatua, *-kan (-kekan)* atzizkiaz lagundurik. Arbizuko burutzapenean ikusiko dugun moduan, oso antzekoak dira bi espektrogramak, eta bietan ikus daiteke *pitch*-aren lerroaren lautasuna, gailentzekotan laugarren silaba, *-ke-*, gailenduko litzateklarik.




Bi silabako hitz markatua dugu hau, *amar* (hamar), eta oraingoan bai, ikus daiteke *pitch*-aren lerroak gorantz egiten duela, era oso nabarian ez bada ere, 20 Hz-tako aldea, gutxi gora behera, antzeman daiteklarik. Oxitonoa genuke, beraz, burutzapen hauxe.

7.2. Uharte-Arakil

Informatzailea: Nicanor Beltza Ustarrotz (72 urte). Data: 1999ko uztailearen 29a.




Adlatiboko singularreko morfemaz osaturiko burutzapena jaso dut oraingo honetan, ‘joan’ aditzaren formaz lagundurik: *Mendie noyek* (Mendira nijoak). Ez da oso argi ageri *pitch*-aren lerroa, baina nabari daiteke bertan ‘nolabaiteko’ (oso Hz gutxikoa nolana ere) igoeratxoa, adlatiboaren burutzapenen oxitoniaren lekuko.




Jaso ditugunen artean nabarmenena hau, dudarik gabe. Datibo singularren burutzapena dugu (*gizonaai man ziok*) eta begibistakoa da diptongo bigarrenkariaren gailentasuna.

7.3. Arbizu


Informatzailea: Pakita Balda Mendinueta (69 urte). Data: 1999ko azaroaren 16a.



Arbizuko burutzapen honetan (*bi apez*) ere, lautasuna nagusi. Hala ere, badirudi azken silaba zertxobait gailentzen dela, hitz markatuen kasuan bezala.



Oraingoan *atximixkekan* dugu burutzapena, eta ez da Etxarrikoan bezain argi ikusten, baina honetan ere, aipatu lautasunaz gain, badirudi azken aurreko silabak dituela Hz gehiago, aurrekoak eta hurrengoak baino gehiago gutxienez.



Bi silabatako hitz ez-markatua, *ama*, sandhian dugu oraingoan, eta oso leuna bada ere, nabari daiteke nolabaiteko desberdintasuna *pitch*-aren lerroan.

8. BIBLIOGRAFIA

- ARAKAMA IMAZ, José María, *Sakanako euskaraz*, lan argitaragabea.
- ARTOLA, Koldo, *Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta*, F.L.V. 60, 187-227, 1992.
- CAMINO, Iñaki, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua. Iruña, 1997.
— : *Goñerriko hizkera*, lan argitaragabea.
- CARASATORRE, Rafael, *Barranca-Burunda*, 1993.
- GAMINDE, Iñaki, *Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa*, F.L.V. 69, 297-321, 1995.
— : *Larraungo Alli herriko azentuaz*, F.L.V. 68, 23-35, 1995.
— : *Lesakako azentu eta entonazioaz*, F.L.V. 71, 45-70, 1996.
— : *Nafarroako azentu ereduen sailkapena*, UEU 23-48, Iruña, 1998.
- GAMINDE, I., HUALDE, J.I., *Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa*, ASJU 29, 175-197, 1995.
- HUALDE, José Ignacio, *Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarritz*, Uztaro 18, 49-60, 1996.
— : *Basque accentuation*, in Harry van der Hulst (*Word Prosodia Systems in the Languages of Europe*), 1996.
— : *Euskal azentu ereduak*, 1997.
- HUIZI, Victoriano, *Manual de Gramatica Bascongada*, Pamplona, 1899.
- IBARRA, Orreaga, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1995.
- IZAGIRRE, Cándido, *Altsasuko euskeraren gai batzuk*, ASJU, 45-97, 1967.
- JIMENO JURIO et alii, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, VIII tomoa, Nafarroako Gobernua, 1992.
— : *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, XII tomoa, Nafarroako Gobernua, 1993.
- MAIZ, E., MUNDIÑANO, I., *Etxarrietatik Sakanerara*, Nafarroako Gobernua, 1998.
- MITXELENA, K., *Acentuación alto-navarra*, F.L.V. 23, 147-162, 1976.
- MUJICA et alii, *Nafarroako euskaldunen mintzoak I*, (Etxarri-Aranatz, Lizarraga, Urritzola), Nafarroako Gobernua, 1990.
— : *Nafarroako euskaldunen mintzoak II*, (Arruazu), Nafarroako Gobernua; 1993.
- NAVARRO TOMÁS, T., *Pronunciación guipuzcoana*, homenaje a Menéndez Pidal, 593-653, 1925.
- SALABERRI, P., *Toponimia dialektologiaren ikerbide*, Iker 7, 619-645, 1992.
- TXILLARDEGI et alii, *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*, UEU, Iruña, 1983.
- TXILLARDEGI, *Euskal azentuaz*, Elkar, Donostia, 1984.
- ZUAZO, Koldo, *Nafarroako euskal hizkerak*, UEU, 1-21, Iruña, 1998.

LABURPENA

Artikulu honetan Sakana erdialdeko azentuaren gaia aztertu dut, aurretik jakinaren gainean izanik hauxe ez dela asmo batere xamurra. Horrexegatik, azterketa esparruko azentuari buruz orain arte esan dena aztertzeaz gain, herriz herri aritu naiz belarriz zein grabagailuz, bertako hiztunek esaten zutena jasotzen, jarraian ondorio batzuk atera ditudalarik, beti ere, kontuan izanik herri bakoitzeko informatzaileek esan eta nire belarriek hartutakoaren araberakoak izan direla gehien bat aipatu ondorioak. Honetaz gain, Ahotsa programa informatikoa erabili dut belarriek esaten zidatena konfirmatu asmoz, eta guztietan ere ez bada horrela izan, gehienetan bai, azpimarratu ditu nire susmoak, artikuluaeren amaieran, burutzapen horietako hamaika azaltzen ditudalarik.

RESUMEN

En el presente artículo se ha estudiado el tema del acento en el euskara de la parte central del valle de Sakana, siendo consciente de las dificultades que el mismo entraña. Para ello, además de revisar cuantos trabajos se han realizado al respecto hasta la fecha, se han ido recogiendo localidad por localidad, tanto a nivel de oído como con grabadora, las particularidades de este tema prosódico, para seguidamente analizarlas y sacar las correspondientes conclusiones, sin olvidar que se refieren exclusivamente a lo dicho por los informantes de cada pueblo y a la percepción del autor del artículo. No obstante, también se ha utilizado el programa informático Ahotsa, tratando de confirmar, como así ha sido en numerosas ocasiones, las mencionadas percepciones, dejando como muestra once realizaciones acústicas al final del artículo.

RÉSUMÉ

Dans le présent article on a traité le sujet de l'accent dans la langue basque du centre de la vallée de Sakana, tout en sachant la difficulté qu'il comporte. Pour cela, outre l'étude de tous les travaux effectués à ce sujet jusqu'à nos jours, on a recueilli, village après village, autant au niveau de l'ouïe, que de l'enregistrement, les particularités de ce sujet prosodique afin de les analyser par la suite et en tirer les conclusions correspondantes, sans oublier qu'elles se rapportent exclusivement aux témoignages apportés par les habitants de chaque village, et aux impressions de l'auteur de l'article. Néanmoins, on a également utilisé le programme informatique *Ahotsa*, pour essayer de confirmer, comme cela a été souvent le cas, les dites impressions, laissant comme démonstration onze réalisations acoustiques à la fin de l'article.

ABSTRACT

The present article studies the subject of the accent of the Basque language spoken in the central part of the Valley of Sakana, albeit aware of the difficulties involved in a study of this kind. In order to perform the study, in addition to looking through all the studies made on the subject to date, the particularities of this prosodic subject have been collected both by ear and using a tape recorder before analysing and drawing the relevant conclusions, bearing fully in mind that everything depends upon the information given by the subjects studied from each village and the author of the article's own personal perception. Nevertheless, the computer programme *Ahotsa* is also used in an attempt at confirming, as has been done on a number of previous occasions, the aforementioned perceptions, leaving eleven acoustic studies as a sample at the end of the article.